

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKO ETA SOZIETATE PUBLIKOEN KONTUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA-2009.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen eta EA Eren partaidetza % 50ekoa baino handiagoa duten Sozietate Publikoen fiskalizazioa mamitu du, 2009ko ekitaldiari dagokiona. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak ez ezik, kudeaketa hobetzeko hainbat gomendio ere besarkatu ditu ondoko sozietate eta zuzenbide pribatuko ente publikoei dagokienez:

- EGAILAN, S.A.
- EJIE, SA
- ET-FV, SA
- NEIKER, SA
- TP, SA
- ATP, SA
- DTP, SA
- AEKSP, SA
- SPRI, SA
- SPRILUR, SA
- VISESA
- ETS
- EEE
- URA

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2009ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan jaso diren hainbat akats salbuetsita.

Bada, URAren kasuan, erakunde publikoak gainditu egin ditu transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalekoetarako 18 milioi euroan ezarritako izaera mugatuko aurrekontu-izendapenak. Langileen atalean bederatzi erakunde eta sozietate publikotan lan-kontratuko 32 langile kontratatu dira inongo hautaketa-prozesurik bideratu gabe,

berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratuz; berebat, ezin egiaztatu izan da printzipio horiek gorde direnik zazpi erakunde eta sozietatek gauzatutako 39 kontratazioetan, hautaketa berariaz gaitutako enpresen bitartez egin baita eta hauek izangaien azken zerrenda soilik eman baitute. Bost sozietatetan, gainera, zuzendariak kargugabetzeagatik indarreko araudiak agintzen duena baino kopuru handiagoko kalte-ordainak ordaindu dira. Ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez unean-uneko ez-betetzeak azaleratu dira erakunde eta sozietate publiko guztietan; azpimarratzekoa da zortzi sozietateetan kontratu txiki modura izapidetutako gastuak, Kontratazioarako Barneko Aginpideetan ezarritako jarraibideak urratuz.

Erakunde eta sozietateen urteko kontuei dagokienez, HKEEK uste du egoki erakusten dutela 2009ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta ondarearen eta ekitaldi itxierako finantza egoeraren irudi zehatza; salbuespen dira, baina, txostenean jasotako hainbat ez-betetze, TP, SA, ATP, SA, DTP, SA, SPRILUR, SA eta VISESA sozietateetan izakin modura erregistratutako aktiboak gauzatzeari dagokionez, guztira 562 milioi euroren zenbatekoan.

Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu iritzi eta gomendioen atal batean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Akats hauek, nagusiki, aurrekontu, langileria eta ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagozkio.